



ORIOKO UDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2018ko azaroaren 13a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 20:00 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:07

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldua Iparraguirre

Zinegotziak

Lourdes Salsamendi Goñi, Angel del Hoyo Bravo, Aitziber Campos Morey, Eugenio Cotado Iturain, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Bixente Lasa Karrikaburu, Gotzon Igoa Agirrezabal, Aizpea Ubegun Manterola, Jose Angel Iparragirre Alberdi, Iñigo Arruti Agirre eta Ana Priede Merchan.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta Orioko Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena. Hitzarmenaren xedea honako hau da: Orioko Portuan Herriko Plazako 5. zenbakiaren parean kai aurreratua egiteko proiektua kofinantzatzea.



- 2.- Onartzea, egoki bada, udal-langileen ordainsariaren igoera 2018rako eta, baita ere, kargua dedikazio osoarekin edo partzialarekin betetzen duten udalbatzarkideen igoera.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA ORIOKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA. HITZARMENAREN XEDEA HONAKO HAU DA: ORIOKO PORTUAN HERRIKO PLAZAKO 5. ZENBAKIAREN PAREAN KAI AURRERATUA EGITEKO PROIEKTUA KOFINANTZATZEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Lankidetza-hitzarmenaren xedea honako hau da: Orioko Udalak Herriko Plazari, Aritzaga kaleari eta Endaia kaleari eragingo dien berrantolamendu urbanistikoa egin nahi du, herrira sartzeko eta herritik ateratzeko bideak aldatuz eta inguru horretan oinezkoentzako gunek irabaziz.

Jarduketa zabal horrek portuetako domeinu publikoa hartzen du zati batean eta horren titulartasuna Euskadiko Autonomia Erkidegoarena da; zehazki, zati hau da hartzen duena: itsasadarraren eskuinaldeko erriberako moila, Orioko moila esaten zaiona.

Eragina zuzena da, alde batetik, portuko azalera bi erreiko bide batek okupatuko duelako, zirkulazioa bi norabideetan izango duena eta bere trazatuan moilaren kantoiraino hurbilduko dena; eta eragin ez-zuzena ere badu, bestalde, zeren-eta, bi erreiko bide hori Eusko Gudari kalearekin lotzen den kurban sartu ahal izateko, moila zabaldu beharko baita, betiere baporeak atrakatzeko moduan utzita.

Moila zabaldu eta baporeak atrakatzeko moduan uzteko exekutatu den irtenbidea Autonomia Erkidegoko administrazioak aztertu eta onartu du eta SESTRA INGENIERIA Y ARQUITECTURA enpresak idatzitako PROYECTO DE MUELLE AVANZADO FRENTE A HERRIKO PLAZA Nº 5 EN EL PUERTO DE ORIO proiektuan jasota dago.

Egin beharreko jarduketa guztien kostua, proiektu horren arabera, 1.681.976 eurokoa da (BEZ barne).

Diru-kopuru hori gehienezkotzat jotzen da, eta gutxitu daiteke egingo diren adjudikazioetan. Proiektuan aurreikusitako jarduketak 2019an exekutatu dira.



Lankidetza-hitzarmena sinatzen duten bi aldeek finantzatuko dituzte proiektuan zehaztutako jarduketak, era honetara:

- Oriko Udalak 516.642,89 euro jarriko ditu.
- Euskadiko Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak 1.165.333,09 euro jarriko ditu.

Nabarmentzekoa da jarraipen-batzorde bat izango dela, honela osatuta: Eusko Jaurlaritzako Portuetako eta Itsas Gaietarako zuzendaria eta Oriko alkatea.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea Batzorde Informatzaileak 2018ko azaroaren 9an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Oriko Udalaren arteko lankidetza-hitzarmena, xede hau duena: Oriko Portuan Herriko Plazako 5. zenbakiaren parean kai aurreratua egiteko proiektua kofinantzatzea.

2.- AHALMENA EMATEA alkateari hitzarmen hori sinatzeko, Oriko Udalaren izenean.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-LANGILEEN ORDAINSARIAREN IGOERA 2018RAKO ETA, BAITA ERE, KARGUA DEDIKAZIO OSOAREKIN EDO PARTZIALAREKIN BETETZEN DUTEN UDALBATZARKIDEEN IGOERA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Igoera horren oinarrian Estatuaren 2018ko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 18.2 artikuluan ezarritakoa dago.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea Batzorde Informatzaileak 2018ko azaroaren 9an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA Udal langileen ordainsariaren igoera 2018rako eta, baita ere, kargua dedikazio osoarekin edo partzialarekin betetzen duten udalbatzarkideen igoera. Igoera hori honela aplikatuko da:

- %1,5 igoko dira 2017ko abenduaren 31n indarrean dauden soldatak, 2018ko urtarilaren 1etik 2018ko ekainaren 30era bitartean, udako aparteko ordainsaria barne.



ORIOKO UDALA



- 2018ko uztailaren 1etik aurrera, beste %0,25 igoko dira soldatak; hau da, %1,75 guztira, aurreko urtekoarekiko.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,